

Gaur hemen elkartu garenok Hondarribiko Alardean parte hartzen dugun gazte multzo zabala gara. Kantina izandakoak, Alardean ateratzen garen gizonezkoak eta espaloietatik Alardea ikusten eta animatzen dugun jende ezberdinez osatutako taldea. Gure ospakizun zaharra den Alardea maite dugu, horregatik, eta Alardea modu osasuntsu batean bizi dezagun, herrian dugun egoerari buruzko zenbait hausnarketa helarazi nahi dizkizuegu. Izan ere, gaur egungo errealitateak Alardearen hondatzea eta kaltetzea besterik ez dakar, honen etorkizuna kolokan jartzen ari delarik.

Hasteko, esan behar dugu talde gaztea osatzen dugunez gero, tamalez, ez dugula istilurik gabeko Alardetik ezagutu, eta gutako askorentzat hasieratik egun horrekin lotutako hainbat oroitzapen gatazka egoeratan emandakoak direla. Bestalde, eta ziurrenik hasierako urte gogor horietan parte hartze zuzena ez izateagatik, gure belaunaldietan elkar ulertzeko aukerak handiak direla sentitzen dugu.

Argi dago gaur egungo Alardea mendeetan zehar emandako aldaketa askoren emaitza dela, eta aldaketa konstante horri esker mantendu dugula gaur egun arte. Beraz, Alardearen etorkizuna ziurtatu nahi baldin badugu, XXI. mendeak eskatzen dituen aldaketak bermatu beharko ditugu guztion artean. Horregatik, Hondarribiko emakume bakar batek Alardean modu batean zein bestean dela parte hartzeko nahia badu, eskubide osoa duela iruditzen zaigu. Eta hain zuzen ere, bakoitzak bere aukera modu askean egitean datza gatazka honi amaiera emateko modu bakarra.

Azkenean, herrian dugun arazoa Hondarribiko herritarren artean hitz eginez bakarrik konpondu daiteke. Iritsi da momentua guztion artean etorkizunera begiratzen duen konponbide bat aurkitzeko. Irailak 8aren eguna merezi duen duintasunera eraman behar dugu berriro ere. Alardearen ospakizuna bere osotasunean -zein sakontasunean- bizitzeko irrikaz baikaude.

Besterik gabe,
Gora Hondarribiko Alardea!